

Lekunberrik

HERRI NORTASUNA
IDENTIDAD DE PUEBLO

Lekunberri,
herri eredu bat
konektatua, irisgarria eta
inoiz baino osasuntsuagoa

Martxo 2022 | 2#
DL NA 731-2020



Lekunberriko Udala
Ayuntamiento de Lekunberri

Munduko turismo erakundeak

Lekunberri saritu du herri turistiko onenetako bat izateagatik

Joan den abenduan, Munduko Turismo Erakundeak Lekunberri saritu zuen Best Tourism Villages sariarekin, landa-turismoko helmuga bikain gisa identifikatuz. Turismo eta Merkataritza Ministerioaren eskutik jaso zuten saria FITUR Nazioarteko Turismo Azokan, Gorka Azpiroz Lekunberriko alkatea eta M^a Jesús Ayestaran Turismo eta Toki Garapeneko zinegotziak.

Lekunberri mundu osoko 75 herrialdetako 170 hautagaitzen artean aukeratu zuten, eta albiste horren berri eman dute nazioko eta nazioarteko komunikabideek.

Horrek dakarren erakargarritasunarekin, bisitari gehiago izango ditugu, zerbitzuen sektorean mugimendu handiagoa egongo da eta garapen ekonomiko

eta sozialean aurrera egingo da, Lekunberri bisitariarentzako leku erakargarria ez ezik, bizitzeko leku hobea ere bilakatuz.

Ohore handia da sari hau jasotzea. Oso ona da Lekunberrirentzat, mugimendu ekonomikoa sortzen jarraitzen duelako eta gure bizilagunen bizi kalitatea hobetzen duelako.

Gorka Azpiroz

Lekunberriko alkatea



Jubiloteka zerbitzu berria

Erretiro aktiboa, hirugarren adinekoentzako bizi-kalitatea.

Astero bi orduko bi saio eskaintzen dira (astean lau ordu guztira), eta horietan pertsona talde bat elkartzen da hainbat jarduera egiteko. Zerbitzu honekin disfrutatzeko deitu edo zatos udaletxera astelehenetik ostiralera 9etatik 14etara.

Bidegorriaren argiztapen iraunkorra uda amaierarako

2022ko aurrekontuaren barruan proiektu berriak sartu dira, hala nola bidegorriaren argiztapena. Gaur egun, uda amaitu baino lehen bukatzea aurreikusten diren obrak esleitu dira.

Gainera, Geroa Baik Parlamen-

tuan aurkeztutako zuzenketei esker, Lekunberrik 137.500 €lortu zituen bere finantzaketarako.

2022rako beste proiektu batzuk

Bidegorriaren argiztapenaz gain, aurten ere, besteak beste, telleria eraberritzeko proiektu-

tua, mugikortasun iraunkorreko plana eta zerbitzu publikoen hobekuntzak egingo dira.

Bestalde, inauterietarako, San Juanetarako eta herriko jaietarako aurrekontua ere bikoiztu egin da.

Pilotalekuko aldagela berrituak eta esperotako bainu publikoa

Frontoian egindako obrekin suteen prebentzioaren, lurzorua leunetaren edo sareen instalazioaren arloko egokitzapenetaz gain, aldagelak osotara berritu dira eta urteetan herritrek eskatutako komun publiko bat sortu da gainera. Komun hau erabili ahal izateko Berri Txarrak plazan egin dugu sarbidea.

Lanen kostua, osotara, 140.000 euro ingurukoa izanda, eta horietatik 60.000 Geroa Bairen Parlamentuko zuzenketa batetik datoz.

Aipatutako hobekuntzek pilota eskolako ikasleen eta Berri Txarrak plaza eta parkea ohiko jolas eta topagune gisa erabiltzen dituzten familien beharrei erantzuten diete.



Zer gertatzen da Lekunberri eta Larraunen?

Eguneko Zentroaren, Eskolaren, Kirol Pabiloiaren eta 0-3 Eskolaren partaidetza eta kudeaketa arautzeko hitzarmena 2009an sinatu zuten bi administrazioek, adostasunez. Hitzarmen honek udal bakoitzaren jabetza arautzen da lehen aipatutako eraikinetan, eta zerbitzuen gastu arruntak eta etorkizuneko inbertsioak ordaintzeko modua ere adosten da.

2022ko urtarrilaren 27an, Lekunberriko Udalak, aldeko 5 botoekin (Lekunberriko Taldea)

eta abstentzioko 3 botorekin (EH Bildu), bi Udalek partekatzen dituzten zerbitzu publikoen parte-hartzearen eta kudeaketaren baldintzak eguneratzeko hitzarmen berriaren proposamena adostu zuen. Helburua, Larraungo haraneko bizilagunek udal instalazioak normaltasun osoz erabiltzen jarraitzea da, jabetzaren % 70a Lekunberriko Udalarena baita.

Aipatzekoa da Lekunberri zerbitzu horiengatik eta biztanle bakoitzarengatik jasaten duen

defizita Larraunek jasaten duenaren bikoitza baino gehiago dela. 500.000 euro inguruko defizitaren 400.000 Lekunberriko daintzen ditu.

Hitzarmena Larraungo Udaleko gobernu-taldeak sinatu behar du, baina oraingoz ez dute horretarako interesik agertu, harik eta Lekunberriko Udalak "126.413,29 euroko" ustezko "zorra" ordaindu arte, joan den urtarrilaren 26an Larraungo Udaletik prentsa-ohar batean adierazi zuten.



Ercilla Partzuergoa.
Uraren kudeaketa.
Gobernuak arrazoia eman
dio Lekunberri.

Lekunberriren eta partzuergoa osatzen duten kontzejuen artean akordiorik ez lortzeagatik hainbat urtez desaktibatuta eta geldirik egon ondoren, Nafarroako Gobernuaren bitartekaritzak Lekunberri arrazoia eman dio. Egungo egoera, partzuergoaren berraktibazioarekin,

zeinaren lehendakaritza zozketa bidez Lekunberri egokitu baitzaio, bi aldeen arteko harremana berraktibatze formula erabakitzea izango da.

Lehentasunak ur-hornidurako zerbitzuen kudeaketa onena eta herritarren ongizatea lortzea dira.



Konponbidea Kantinako parkinarentzat

Azkenean, herritarrek aspalditik salatzen zuten arazo bati irtenbidea eman zaio: euria egiten duen bakoitzean, ez da putzurik, lokatzik edo zikinkeriarik egongo Kantinako aparkalekuan.

40.000 euro inguruko kostuarekin eta Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta, hiru asteko lanen ondoren, betiko konpondu da arazoa.

Obra honek mota guztietako pertsoneri egingo die mesede: Kantinaren erabiltzaileei, Plazaolako Bide

Berdearen ibilbidea egiteko puntu hau hasiera edo amaiera gisa aukeratzen duten kirolariei eta Lekunberrin eta inguruetan eguna pasatzera edo turismoa egitera datozen pertsoneri. Herriko gune estrategikoa da eta mota guztietako jendeari ematen dio zerbitzua.

Turismoarentzat onuragarria

Turismo Bulegotik gertu dagoenez, lekua bisitari guztientzat egokitzea lortu dugu, Lekunberriko herriaren irudia hobetuz eta sarbidea eta bisita erraztuz.

Rokodromoa jarriko dugu kiroldegian



Herritarren eskaerak entzun ondoren, 2022an rokodromoa jarriko dugu kiroldegian, 20.000 euro inguruko kostuarekin.

Bertan, maila desberdinetako eskalarekin lotutako hainbat jardueraz gozatu ahal izango da. Horrela, Lekunberriki kirol honen zaletasunaren "boom"arekin bat egin du.

Diziplinak biltzen dituen kirol klub berria



Hainbat kirol diziplina batzeko asmoz, zenbait pertsona eta erakunde elkartu dira klub hurbilago bat sortzeko.

Eredu hau beste leku batzuetan ere existitzen da, hala nola, Leitizan, Aurreira kirol klubarekin. Udalak babes osoa adierazi dio klub berri honi eta Lekunberriren presentzia kirol esparru guztietan defendatu du.

Inauteriak normaltasun osoz ospatu dira



Jaiekin gertatu bezala, Lekunberriki inauteriak ospatzeko aukera izan zuen.

Joan den otsailaren 19an, Nafarroako Gobernuak murrizketak kendu eta gutxira, gure herriko kaleak mozorroz, kolorez, musikaz eta dibertimenduz bete ziren. Bazkarian 80 pertsona izan ziren eta, batez ere, umore ona nagusitu zen. Go-koak genituen, bai!

Lekunberri, Bizitzeko leku on bat

1996tik Lekunberriko biztanleria bikoiztu egin da, 800 biztanle-tik 1.624ra igaroz. Gainera, 890 pertsoneri ematen die lana (horietatik 500 baino gehiago herrian bizi dira). Horretaz gain, Lekunberri, azken bi urteetan, 60 landun berri gehitu ditu, duela hamarkada bat baino 182 gehiago izanez.

Industrialdean, zuzeneko 500 lanpostu inguru sortzen ari diren 28 enpresa ditugu, eta 2022rako hazkundearekin jarraitzea espero da. Lekunberri, atzean ez geratze-

ko, prestakuntzaren eta etengabeko hobekuntzaren aldeko apustu sendoa egin du. Horren adibide dira Lekunberri Susper-tu proiektua eta Lekunberri ON plana.

Lekunberri Susper-tu proiektua 2021eko maiatza eta urria bitartean inplementatutako ekimena izan da, Lekunberri-ko bizilagunen ongizatea eta zorientasun maila hobetzeko. Udalak sustatu du, El Buen Vivir-en laguntza teknikoarekin eta Nafarroako Gobernuaren kofinantzaketarekin.

Ongizaterako kritikoak diren zapi puntuen inguruan gauzatu-tako hainbat ekimen aztertu ziren, praktikak eta gauzatu beharreko ekintzak identifikatzeko tailer parte-hartzaileak antolatu ziren eta ongizateari buruzko inkesta bat egin zen.

Azkenik, bildutako informazio guztiarekin, Ongizate Plan Estrategikoa sortu da, dagoeneko ezartzen ari dena eta udaletxean edo udalaren web-gunean eskuragarri dagoena.



Lekunberri On

Herriko garapen ekonomiko eta sozialaren aldeko apostua

Legegintzaldia hasi zenetik, Udalak konpromiso argia erakutsi du kalitatezko eta hurbileko enpleguarekin, Lekunberri eta inguruko garapen ekonomikoaren eragile gisa.

Horregatik, Prestakuntza eta Enplegurako Plan Estrategikoak irmotasunez

aurrera egiten du planteatutako bost helburuetan: industrialdeko enpresen lehiakortasuna sustatzea, hurbileko enplegua bultzatzea, topaketa-foro bat sortzea, ekintzailetzako hub bat ezartzea eta plan horren ezarpena bultzatuko duen gobernantza-sistema bat sortzea.

Belar berria udal futbol zelairako

13 urtez belar berarekin egon ondoren, berritzeko beharra agerikoa zen. Klube-ko futbolariaren kopuruaren handitzeak (gaur egun 220 inguru dira), belardiarren higadura eta narriadura ekarri du. Horregatik, aldaketa honek behar sozial bati erantzun dio, frontoiko obrek bezala.

Haurrek ondo hornitutako kirol-instalazioak behar dituzte, egungo premie-

kin eta praktikekin bat datozenak. 170.000 euroko inbertsioarekin, horietatik 90.000 Geroa Bairen parlamentu-zuzenketa bati esker eskuratutakoak, futbol-zelaia jada egoera ezin hobean dago.

Beti Kozkor kluba indartzeko lanean

Gaur egun 220 futbolari osatzen duten kluba hobetzeko eta hazten jarraitzeko lanean ari da. Horren adibide dira klubaren berregituratzea, zuzendaritza-batzordea handituz, edo babesle berrien etorrera.

